



# Done Petri Txiki

ermita

Aldaeak: San Pedro Txiki  
Ahozkoa:



43°10'21"

2°35'57"

Berriz Iruditan / A. Arbulu

Done Petri, benetako izenaz Simon, apostoluetako bat izan zen eta Erromako lehenengo apezpikua. Katolikoentzat Elizaren buru izendatu zuen Jesusek eta lehenengo aitasantua izan zen. Horretaz gain Zeruko giltzak eman zizkion eta horregatik irudietan giltzak eskuan ageri da. Erroman hil zuten gurutzean 67. urtean, baina hiltzailei buruz behera jartzea eskatu zien, uste baitzuten ez zela nor Jesus bezala hiltzeko. Bere hilobiaren gainean eraiki zen Vatikanoko Done Petri katedrala.

Tradizioaren arabera Neron kristauen kontra hasi zenean Petrik Erromatik alde egitea erabaki zuen. Apia portalea igaroa bezain laster Jesusekin egin zuen topo eta galdetu zion: «Quo Vadis, Domine?» Nora zoaz Jauna?) eta Jesusek erantzun zion: «Romam vado iterum crucifigi» («Erromara berriro gurutzean hiltzera»).

Petri lotsatuta Erromara itzuli zen eta 3 urte beranduago martirizatu zuten.

Trentoko kontzilioak ekarri zuen santuen euskarazko izenak baztertzea eta erdarazkoak

nagusitzea. Horregatik Bizkaian ohikoa izan da jatorrizko *Petri* izenaren ordezkarak ere gaztelaniarazko *Pedro* erabiltzea. Horretaz gain euskaraz badira era asko santu hau deitzeko, arruntena *Peru* da, gure artean pertsona moduan oso erabilia eta Sabino Aranek asmatu zuen *Kepa*. Izen hau arameozko *Kephas*-etik ateratu zuen Jesusek arameoz esan baitzion Simoni eliza eraikiko zuen haitza (arameoz *kephas*). Geroago hitz hori latinez Petrus moduan itzuli zen eta handik sortu ziren *Pedro*, *Peter*, *Petri*, *Pierre*...

Berrizko zaindariaren ermita da, Isuntza -edo Ereñan- dagoen arren. Tramu bakarreko eraikina da, luzenka. Elizpea oinaldean dauka bakarrik, sarrera gisa. Honetan, zokalo eta egurrezko zutikoekin batera, alde bateko horma azpimarratu behar da, iparreko haizeetatik babesteko. Barrualdea ikusgai dago, oinaldean hormaren ordezkarako, zokaloaren gainean egurrezko hesia dagoelako, eta honetan, atea. Sakristia eta kanpai-horma ere badu, azken hau hormigoizkoa izanik.



*Done Pedro Txiki, 1933, Guregipuzkoa.net/Ermita de san Pedro Txiki © CC BY-SS: Ojanguren, Indalecio.*